

# Izagaldeako Euskara Zerbitzurako Logo lehiaketaren oinarriak

**Izagaldea Euskara Zerbitzuak** sei udalerrri hartzen ditu bere eginbeharrean: Lizoainibar-Arriagoti, Urrotz-Hiria, Izagaondoa, Urraulbeiti, Longida eta Elo. Haien artean, Izaga mendia da elementu komuna eta adierazgarri bat, hortik izena.

**Helburua:** Zerbitzurako irudi bat sortzea, logoa.

**Parte hartzeko.** Lehiaketan 18 urtetik gorako edozein pertsonak parte har dezake. Parte hartu nahi dutenek nahi beste proposamen aurkeztu ditzakete, gainera. Proposamen bakoitzak bere izengoitia eraman beharko du.

**Logoaren diseinua.** Logotipoaren diseinuak erabilera anitzak emateko modukoa izan beharko du; hainbat formatu edota espaziotan erabiltzeko gaitasuna ere izan beharko du. Logotipoaren diseinuaren eta koloreen azalpena ematea kontuan hartuko dute. Logotipoaren diseinuak euskarri digitalean eta paperean aurkeztu beharko dira.

**Saria.** Sari bakarra: **200 €.**

**Epaimahaia.** Alkateek izendatutako epaimahaiak hautatuko du ideia lehiaketako diseinu irabazlea zein izango den. Udaleko bakoitzeko alkateek izendatuko dute epaimahi-kidea, hala nahi badute eta euskara teknikaria ere epaimahaian izango da. Epaimahaiak hala erabakiko balu, lehiaketako saria eman gabe utzi dezake.

**Lehiaketara nola aurkeztu proposamenak.**

- Diseinu bakoitza atzekaldean identifikatzeko erabiliko den goitzenarekin sinatu beharko da.
- Euskarri digitalean eta paperean aurkeztu behar da eta horrekin batera bi gutunazal itxi aurkeztu behar dira.
- Bi gutunazal itxiak: (A gutunazala) egilearen datuak jarri beharko dira: izen-abizenak, helbidea, telefonoa, posta elektronikoaren helbidea, faxa edota identifikatzeko beste edozein datu. Bigarren gutunazalean (B gutunazala) proposatutako diseinuaren azalpenak, aukeran, eta bertan, logotipoa hainbat espazio eta formatutara egokituta. Bi gutunazalak (A eta B hizkiz berezituta) kanpoaldean honako idatziarekin identifikatu behar dira: "Izagaldeako Euskara Zerbitzua irudikatzen duen logo lehiaketa". Gainera, lehiakidearen goitizena jarri behar da.

**Proposamenak noizko eta non aurkeztu.** Logotipoaren diseinu proposamenak ekainaren 16a arte aurkez daitezke, Urrotz-Hiriko udaletxean, honako ordutegian: asteleheneetik ostiralera 09:00etatik 14:30etara bitartean. Galderak [euskara.izagaldea@gmail.com](mailto:euskara.izagaldea@gmail.com)

**Jabetza intelektuala eta industria eskubideak.** Epaimahaikideek aukeratutako logotipoaren diseinu saridunaren egileak Lizoainibar-Arriagoitik Udalari utziko dizkio eskusiboki jabetza Intelektuala.